

Apocalyptica Biolontxelo metalikoak



Gazza Strippers Punk-rock musika puri-purian

mikel lizarralde

Glueciferren Europako biran parte hartu ondoren, Gazza Strippers punk-rock talde estatubatuarrek Bergarako Jam aretoan joko du igandean, eta harekin batera Nuevo Catecismo Catolico Buenavistako taldea eta Bionic kanadarra izango dira.

Rick Sims da Gazza Stripperen arima, The Didjits eta Supersuckers taldeetan aritutako musikaria, eta 1996. urtetik darama bere punk-rock musika ulertzeko modua lantzen. Aurretik, esan bezala, The Didjits Chicagoko punk taldea sortu zuen, eta 80ko hamarkadaren amaieran eta hurrengoaren hasieran bost disko argitaratu zituen talde horrekin. 1994an Supersuckers taldean sartu zen Sims eta country-punk musikaren erregeen Sacrilegious lanean parte hartu zuen. Hala, B-52's taldeko Fred Schneiderren Just Fred lanean ere kolaboratu zuen garai berean.

Hala ere, 1996 arte ez zuen bere proiektu pertsonalena abian jarri. Darren Hopper baxu jolearekin eta Tood Marino batera jolearekin, Gazza Strippers taldea sortu zuen, eta hurrengo urtean bere lehenengo singlea kaleratu zuen. *Laced candy* (98) iraupen luzeko diskoarekin, berriz, punk-rock musikaren zaleen arreta piztu zuen berehala, eta zuzeneko emanaldi indartsuek Gazza Stripperen balioa berretsi zuten.

Oraingoan *1000 watt confessions* lana esku artean dutela datoz Sims eta taldekideak. Punk-rock-and-rolla maite dutenek ezinbesteko hitzordua dute igandean; are gehiago Bionic eta NCC ere han izango direla jakinda.

Gazza Strippers, Bionic eta NCC
Bergarako Jam aretoan
Igandean

nen) osatzen dute Apocalyptica, eta 1993tik daramate jotzen. Nahiz eta musika eskolatik irten berriak izan, heavy entzuten zuten, eta hori izan zen taldearen erredua hasiera-hasieratik. *Plays Metallica by four cellos* (95) taldearen lehenengo diskoak izenburutik bertatik azaldu zuen zer zeraman barruan. Metallicaren musikara hurbildu ziren Helsinkikoak, baina txeloen laguntza bakarrarekin, eta garaile atera ziren erronkatik. *Inquisition symphony* taldearen bigarren diskoak (97) Metallicaren moldaketak jaso zituen (*One, Fade to black...*), baina baita Sepultura eta Faith No Morerenak ere. Gainera, lehenengo aldiz Eicca Toppinenen hiru pieza sartu zituzten finlandiarrek diskoan.

Ulrich eta Hetfielden arrastotik ihes egiteko joera horretan, *Cult* deitzen da Apocalypticaren azken diskoa. Oraingoan, Toppinenen beraren konposizioek osatzen dute lanaren bizkarrezurra, eta hirutan baino ez dute kanpoko iturrietara jotzen —bi aldiz Metallica eta behin Edward Grieg konpositore klasikora—.

Finlandiarrek gaur bertan aurkeztuko dute, Bergarako Jam aretoan, beren proposamen ausarta.

mikel lizarralde


Nahiz eta heavyaren arma klasikoak ez erabili, Apocalyptica Finlandiako taldeak metalaren jarraitzaileen errespetua eta onespena eskuratu du. Izan ere, laukote honek ezohiko tresnak (lau biolontxelo hain zuzen) ditu bere soinuaren ardatz, baina musika gogorra, pisutsua eta melodikoa egiten du. Metallica eta musikagile klasikoak bateragarriak direla erakusten duen taldea baita Apocalyptica.

Talde heavyek askotan jo dute musika sinfonikora beren kantuak janzteko —ez da denbora asko pasatu Metallica bere azken diskoa orkestra batekin grabatu zutenetik—, baina inor gutxi ausartu da musika klasikoaren tresna hutsak erabili metal egitera. Apocalyptica izan da hori egin duen bakanetakoa.

Heziketa klasikoko lau biolontxelo jolek (Paavo Lötjönen, Pertu Kivilaakso, Max Lilja eta Eicca Toppinenen) osatzen dute Apocalyptica, eta 1993tik daramate jotzen. Nahiz eta musika eskolatik irten berriak izan, heavy entzuten zuten, eta hori izan zen taldearen erredua hasiera-hasieratik. *Plays Metallica by four cellos* (95) taldearen lehenengo diskoak izenburutik bertatik azaldu zuen zer zeraman barruan. Metallicaren musikara hurbildu ziren Helsinkikoak, baina txeloen laguntza bakarrarekin, eta garaile atera ziren erronkatik. *Inquisition symphony* taldearen bigarren diskoak (97) Metallicaren moldaketak jaso zituen (*One, Fade to black...*), baina baita Sepultura eta Faith No Morerenak ere. Gainera, lehenengo aldiz Eicca Toppinenen hiru pieza sartu zituzten finlandiarrek diskoan.

Placebo

Anbiguotasuna eredu



guotasuna bultzatu du bere irudian Brian Molkok, eta inoiz ez du ezkutatatu ahalik eta disko gehien saltzea dela bere helburua. Eta badaki horretarako ereduak aukeratzen: «U2k 87 milioi disko saldu ditu. Gerra atomiko bat egongo balitz ere, *The Joshua Tree*-ren aleak aurkituko genituzke espazioan. Era horretako helburuak jartzen badiugu, errazagoa izango zaigu platinoko diskoak lortzea».

Asmo hori lortzeko ahaleginean, *Black market music* da Placebok egin duen azken urratsa. Aurten kaleratu dute ingelesek hirugarren disko hau, eta lehenengo biek —*Placebo* (96) eta *Without you I'm nothing* (98)— jorratutako estiloan sakondu du. Betidanik erakutsi duten epikarako eta melodia handinahietarako joerak hortxe segitzen du, eta The Smashing Pumpkins taldea ez dutela hain urruti azaltzen duten hainbat kantu biltzen ditu.

Placebo eta Sneaker Pimps

Bilboko Casilla kiroldegian
Ostiralean, 21:00etan

mikel lizarralde

David Bowie handiaren telonero lanak egin zituen Placebo taldeak orain dela lau bat urte Euskal Herria egindako bisitan. Disko bakarra zuten ingelesek, baina merkaturak zuten orduko, eta Erreuma Batuko musika astekariak leruz. Lau urte igaro dira ordutik, eta oraingoan izar nagusi gisa dator Placebo, baina ez dirudi taldeak erdietsitako arrakasta askorik handitu denik denbora honetan.

Brian Molkok (gitarra eta ahotsa), Stefan Olsdalek (baxua) eta Steve Hewitek (bateria) izugarriko abiadarekin egin zuten areto txikietatik pabilioi handietarako jauzia. Aspal-diko David Bowiek berak bezala, sexu anbi-